

Kaixo

2012 URTARRILA / 106. ALEA

urretxu!

2. orrian

GU SORTU GINEN ENBOR BERETIK...

Jose Mari Lasas, Urretxuri eta

herrigintzari lotutako bitziza bat

8. orrian

DIAGNOSIA, HERRIGINTZA AKTIBOAN SAKONTZEKO LEHEN URRATSA

Udala eta sektoreen arteko lehen bilerak martxan dira

10. orrian

LAS REBAJAS YA NO SON LO QUE ERAN

La crisis se hace notar en los comercios locales

12. orrian

HARRERA BERRIA, ATE ALDAKETA BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO

Herritarren Arretarako Zerbitzua abian da sarrera berrian

Kaixo urretxu!

Urretxuko Udal Aldizkaria



...sortu daitezen besteak



Nekez imajina ahal genezakeen Kaixoren etapa honetarako hasiera tristeagorik. Aldaketa guztien aurretik izaten diren ilusio eta urduritasunak bat-batean ilundu zitzaizkigun 2012ko lehen astelehen hartan. Onartu beharra daukagu, lehen uneetan umezurtz sentitu ginela, kolpeak Urretxuren arnasa geratu zuen zenbait orduz, dena ilundu zen eta denbora bera ere gelditu ote zen iruditu zitzaigun.

Hala ere, ohikoa zenuen eran, agurrean ere didaktikoa izan zinen Jose Mari, eta azken hatsaren ondoren ere, bazenuen denontzat lezio dotorerik. Eliza ez ezik, Urretxuko plaza ere txiki utzi zuten zuri azken agurra ematera gerturatu ziren era eta arlo guztietako hainbat eta hain-

bat adiskideek. Herrigintza hitzaren benetako esanahia, Pablo Solozabalen Gernika hunkigarriaren noten artean ikasi genuen. Orduantxe ulertu genuen baita ere, etxeokak babestu eta kontsolatzeaz gain, aspaldi ireki zenuen bide horretan jarraitzea dela egin dezakegun onena. Sarri elkarrekin abestu genuen bezala, «gu sortu ginen enbor beretik» sortu daitezen besteak.

Sortu zenuen Kaixo honetatik, zurekin elkarlanean aritutako zenbait lagunekin egon nahi izan dugu, horrenbeste esparru jorratu zituen gizon handi horren soslai jaso, ezagutarazi eta gure omenalditxoa egiteko.

Beti arte Jose Mari.

MIREN CASTILLO

|| 23 urte nituela, Kultur etxean oraindik telefonorik ere ez zegoela, sartu nintzen lehen aldiz, Jose Marirekin batera, Aizpuru-nea honetara. Urte hauetan guztietan, asko ikasi dut beragandik. Urretxuko ohitura eta usadioen inguruko entziklopedia-rik handiena eta osatuena bera izan da, edozein zalantza argitzeko beti prest zegoena. Neretzat beti autoridade bat izan da, eta bion izaera eta egoskorkeriaren erruz inoiz talka egin bagenuen ere, oso argi daukat, autoridade hori ondo irabazia zuela.



|| Udalean egon ginen garaiko Joxemari-ekin bizitako esperientziak oso onak izan ziren. Esan daiteke orduan ezagutu nuela benetan Joxemari eta, zer nahi duzu ba esatea?

Beti ezagutu dugun bezala, ikaragarritzko langilea, azkarra eta umila zen. Zein erraza zen bere laguna izatea.

Zerbait zehatza aipatzeko, adibidez, bera izan zen Kaixo Udal Aldizkariaren bultzatzaile nagusia. Lehenengo aleak, aurrekontu faltan, Gainzuri ikastetxean zegoen multikopista batekin egin genituen, lan or-

ikasitako guztiaren artean, ordea, jende guztia era berean tratatzen irakatsi izana eskertuko diot gehien. Gizon zuzena izan zen oso Jose Mari eta Donostiako Orfeioa-ekin jo behar bazuen, hantxe egongo zen, baina herriko ekitaldirik xumeenean ere, bera zen bere burua eskaintzen lehena. Ekintzak aurrera eramateari ematen zion garrantzia, alboan zuena primerako musikaria izan edo ikasten ari den gaztetxea izan.

Igandeetako kalejiretan eta plazako taula gainean faltan botako dugu, baina Jose Mari hori baino askoz ere gehiago zen. Hutsune handia utziko du. Kanean, jendaur-reen ematen zituen orduak asko ziren, baina atzean lanean emandakoak askoz gehiago. Asko botako dut faltan.

JOSE LUIS GARMENDIA

duetatik kanpo eta gaueko ordu txikitari, askotan tramankulu harekin asmatu ezinda. A zer komeriak izaten genituen!!! Ordurako gaiak, idazleak, marrazkiak... ko-ordinatuta eta lanek jasota egon behar zuten. Gero grapatu eta buzoneatu egiten zen. Hemen ere, taldea antolatzeke Joxemari-aren dohaina funtsezkoa zen.

Nola laguntza ukatu bera hain inplikaturik ikusita...?

Berdina esan daiteke Iparragirreraren Urte-muga ospakizunetan: abestien diskoa, Iparragirreraren bizitako komikia... Baita ere Urretxuko Historiaren liburua ateratzeko eman zuen bultzadari buruz ere.

URRETXUKO LIZARRITURRI TXISTULARI TALDEA

Ai, Joxe Mari, Joxe Mari

Urte berri on esateko astirik ere ia ez diguzu eman.

Gure taldean utzi duzun zuloa ez dakizu zenbaterainokoa den... Ez dakigu zulo hori estaltzen asmatuko ote dugun, baina jakin ezazu lanean jarraitzeko asmoa dugula. Hori izaten da talde baten abantaila, batek kale egindakoan besteek jarraitzeko aukera dute, eta hori zuk ederki erakutsi zenigun.

Ziur izan 2012. hau oso zaila izango zaila zu gabe imajinatzea. Zaila izango da danborradako kalejira zure agindurik gabe jotzea, edo entsaiora berandu bada ere iristen ez zarela ikustea, edota San Joan suaren alboan "San Joan San Joan nik besterik ez daukat gogoan" zure ahotsik gabe

entzutea. Urretxuko jaietako txistu kontzertuan zure gidaritza berdintzea ezinezkoa izango da. Orain zeinek zuzenduko dizkigure euskarazko akats eta erderakada larriak? Kalejiretako erritmoak zeinek bizi-tuko ditu? Horrela ekimenez ekimen egunero gogoratuko gara zurekin.

Ederra izan da urte guzti hauetan zu eza-gutu, zuregandik ikasi eta zure lagun izatea. Luxu bat izan da.

Zuk erakutsitakoari jarraipena ematen saiatuko gara: musikaz gozatzen, kantatzen, aldamenekoen lana miresten edota Urretxu maitatzen.

Eskerrik asko guztiagatik.



URRETXUKO KANTU AFARIA TALDEA

|| 2008ko irailak 22, arratsaldeko 20:00ak. Marisa Alvarez: Joxe Mari, euria ari du eta horrela jarraituko duela iragarrita dago. Jose Mari Lasa: lanbroa baino ez da. Atertzen duenean egingo dugu montajea, ez du eta euri itxurarik.

Amen. Urtero bezala Avenidan egin genuen montajea. Iluntze hartan, ordea, zaparrada handia hasi zen kantuan hasi eta gutxira. Jose Mari berak esan zuen mikrofonotik ekitaldiak Gernikako Arbola plazan jarraituko zuela, Udaletxeak jarritako estalpean.

Hura hanka-jokoa! Askok euren aulkiak hartu eta martxa! Beste zenbait, aldiz, korroetako aulkiak jaso eta Gernikako Arbola estalpera eraman gemituen.

2008ko hura izan zen Avenidatik kanpo egin genuen lehen Kantu Afaria eta, 2009koarekin batera, aterpean ospatutako

bakarra. Beraz, gaur arteko hemezortzi Kantu Afarietan hamasei Avenidan egin baditugu, Jose Marirengatik izan da hori; berari esker edo bere erruz, nahi den moduan.

Ekitaldiak Avenidan behar zuen, bai ala bai. Egoskorra gizona. Baina zer dela eta tema hori? Zuzenean ez genion sekula galdetu, baina pentsatzen dugu umetako oroitzapenek eragina izango zutela. Izan ere, duela 45 bat urte bizitza handia izaten zuen Avenidak Santanastasietan: kioskoan musika emanaldiak izaten ziren, inguruan dantza egiten zen eta mahai zein aulkiak ere izaten ziren, Navarro tabernakoek jarritakoak, besterik ez zegoen-eta.

Egun, txiri-miririk bada Urretxuko Jaietako astelehenean, askori barruak hitz egingo digu, esanez: lanbroa baino ez da. Atertzen duenean egingo dugu montajea, ez du eta euri itxurarik.



Kaixo urretxu !

MIKEL LIZARRAGA

Jose Mari Lasak euskara maite zuela, euskaraz bizi zela, Urretxu euskalduna nahi zuela ez dago ukatzerik. Neuk euskara zela medio izan nuen lehen harremana Jose Marirekin. 1981eko uda zen, Eusko Jaurlaritzak HABE erakundea sortu zuen eta udalei euskaltegiak sortzeko aukera eman. Jose Mari eta beste kide batzuek adi eta erne ekin zioten aukerari eta, horrela, baietza eman zioten. Arrasate eta Ermuko udalekin batera, lehenak izan ziren, hain zuzen ere. Jose Mari eta Jose Luis Garmendiarekin Arrasateko Amaia antzokian izan nintzen HABE egitasmoaren berri izaten. Izan ere, Urretxuko udal eus-



kaltegi lanpostua lortua nuen. Hortik aurrera euskaltegia martxan jartzen estu eta gogor aritu ginen eliza ondoko eskola nazionaletan eta urriaren hasieran hasi genituen eskolak. Jose Mariaren euskararekiko grina argi ikus dezakegu adibide honekin: Udaleko hiru langile erdi liberatuak izan ziren euskara ikasteko: idazkaria, kontuhartzailea eta udaltzain bat.



Urte Berria albiste txar batekin hasi zaigu, Joxemari Lasak gure ondotik alde egin duela. Goiargi Abesbatzako kideek lagun, abeskide eta txistulari bezala gogoratzen dugu.

Joxemari ahots nahasiko abesbatza sortu zenetik taldekide izan genuen, baxuen sailean. Ordurako, herri mailan kultura eta musika arlotan aski ezaguna zen. Entsaioek, kontzertuek, bidaiek, txangoek, afariek... lagun bihurtu gintuen.

GOIARGI ABESBATZA

Nahiz eta abesteari utzi izan, ez zuen inoiz abesbatzarekiko bere erlazioa eten. Koruarekin Gabon eta Santa Ageda errondatan ateratzeko bere burua eskeintzen zuen beti, txistulari taldearekin. Ez zegoen abisatu beharrik, berak beti aurre hartzen zigun. Eta inoiz korua utziko ez bazuen moduan, gurekin abesten zituen ikasitako abestiak.

Lerro xume hauen bidez, txistularia, abesbatza kidea, LAGUNA, ohoratzen dugu, eta gure herrien kultur ondarea sustatzeko bolondres lan honekin aurrera jarraitzeko konpromezua hartzen dugu.

IRATZARRI DULTZAINARI TALDEA

1978. urteko Santa Lutzi egun batek eza-gutu zuen lehendabizikoz Iratzarri dultzainari taldea. Tartean, zu, sortzaileetarikoa, Joxe Mari. Santa Lutzi eguna izan da baita ere zure azken dultzaina kalejira doinuak entzun dituen, baina 33 urte beranduago. Urte guzti hauetan, ezetz esaten ez dakienaren umiltasunaz, aukera ba-koitza dultzainaz gozatzeko aukera berri gisa bizi izan duzu. Eta taldekideei, dultzaina jotzeaz gain, hau guztia irakasten gozatu duzu. Izan ere, zeure maila erakutsi baino, nahiago izan baituzu zetozenei aukera eman, ahalik eta lan txukunena eginaz betiere.

Gure nota desafinatuen ondoan irrifartsu joaten zinen, Oskorri taldearekin errepi-katu behar izan zenuen grabaziora bezala, eskatutako dultzainari parearen orde-



zazpi gazte eraman zenituelako. Adibide bat da. Baina zazpi ez; dultzaina batetik hemeretzi atera dituzu, eta guztion artean ere kosta egingo zaigu zure hutsunea betetzea. Zuri esker gara, eta zuri esker izango gara. Beti aurkituko zaitugu gure noten artean. Hitzak, soberan daude.



Diagnosia, herrigintza aktiboan sakontzeko lehen urratsa

Kultura demokratikoan sakontzea da legegintzaldi honetako ardatzetako bat eta bide horretan, herritar eta botere publikoen arteko harremanak aztertzen ari dira

Kultura parte hartzailea, demokrazia aktiboa, herrigintza eta auzo-lana kontzeptu teoriko politak izateari utzi eta udalaren egunerokoa gidatuko duten printzipioak izatea da Udal Gobernu honek 2011-2015 legegintzaldirako jarri duen ardatz nagusienetako bat. Urteen poderioz sortutako herritarren eta udalaren arteko arrailak eta mesfidantzak sendatu eta elkarrekin aurrera egitea da xedea eta horretarako proiektu estrategiko baterako lehen urratsak martxan jarrita daude.

Abenduaren 20an herriko sektore desberdinekin egin zen planaren aurkezpen publikoaren ostean, egungo egoeraren azterketa bat garatzen ari da, dagoen potentziala eta ahulguneak aztertu eta, denon artean, aurrera begira hartu beharreko neurriak adosteko.

Jon Altolagirre Udaleko 2. alkateorde eta arlo honen arduradunaren iritziz, «gizartea hiru esferatan bana genezake, botere politikoena, gizarte zibilarena eta sozioekonmiarena. Hiru hauek elkarreaginean daude baina euren arteko harreman hau zenbat eta estuagoa izan, gizartea demokratikoagoa izango da».

Martxan jarri den egitasmoa lehen bien arteko espazioan kokatu da, hau da, herritarren eta botere publikoaren arteko harremanetan.

«Horren harira, bederatzi sektore identifikatu ditugu (kultura, euskalgintza, berdintasuna, ingurumena, gazteria, kirola, auzoak, 3. adina, baserritarrak). Sektore horien egikaritzea erabakitzerako garaian, tradizio parte-hartzailea duten sektoreak eta indartu nahi direnen arteko oreka bilatu nahi izan da», azaldu zuten Altolagirrek.

Elkarren artean, heritarren eta udalaren arteko harreman eredu berri baterako tresna egokienak adostu bidean, aurreneko diagnosi honekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

*** Parte hartze eta elkarlanerako interes eta gaitasun handiena duten sektoreak eta pertsonak identifikatzea**

*** Kultura berrirako ernamuina sortu**

*** Udalaren eta herritarren/herrigintza-ren parte-hartze itxaropenak ageriko egin**

**** Parte hartzearentzako oztipoen berri jaso***

**** Harreman parte hartzaileago baterako egitasmoa osatu***

Lehen fase honek izango duen dinamizakari dagokionez, bi bilera fase aurreikusten dira. Lehenengo bileretarako ezarri diren helburuak honakoak lirateke: parte hartzea ulertzeko modua adostu, sektorearen egoera (beharrak eta indarguneak) identifikatu, barne azterketa, sektoreen arteko harremanen diagnostia egin eta Udalarekiko hartuemanen analisia osatu.

Hemendik ateratako ondorioekin, bigarren bilera fasean sektoreetako eragileen, sektore arteko eragileen eta udalaren arteko jarduera berriaren proposamena landuko litzateke, adostutako harreman-eredua eta harremanen edukia bera kontuan hartuz.

Prozesu honek jarraitu nahi duen egutegia honako hau litzateke:

**** Abendua: Aurkezpenak sektore ezberdinekin eta modu publikoan (Abendua-ren 20an egin zen aurkezpen publikoa)***

**** Urtarrila-otsaila: Diagnostiko-bilera sektore guztiekin***

**** Otsaila-martxoa: Proposamen bilera sektore guztiekin***

**** Martxoa: Ondorioen kontrastea sektore bakoitzean***

**** Martxoa-apirila: Azken aurkezpenak***

Dar la vuelta a la forma tradicional de entender la política municipal es uno de los grandes objetivos que se ha marcado el Gobierno Municipal de cara a la presente legislatura. De ahí el logotipo escogido para este proyecto, la doble laya que quiere simbolizar esa apuesta por revertir las prácticas establecidas y apostar por un nuevo modelo de relaciones entre instituciones y sociedad, con la clara vocación de fomentar una participación mucho más activa de los distintos sectores de Urretxu.

Dentro de un proyecto de estabilizar canales de comunicación directos entre los ciudadanos y el Ayuntamiento, ya está en marcha un proceso de diagnóstico para, entre todos, realizar una radiografía de la situación actual, con sus puntos fuertes y sus debilidades, y diseñar unos instrumentos con los que poder gestionar esa democracia activa tan anhelada y necesaria.

El proceso arrancó el pasado mes de diciembre con una exposición pública por parte de los responsables municipales en la que la respuesta popular fue muy positiva y está previsto que esta primera fase de diagnóstico se desarrolle hasta el mes de abril.

En cuanto a la dinámica de esta primera fase, se prevén dos fases de reuniones, una primera toma de contacto en la que consensuar la forma de participación y analizar la situación del sector, y una segunda en la que, teniendo en cuenta los resultados de este análisis, trabajar la propuesta que guíe las nuevas relaciones entre instituciones y sociedad, con el claro objetivo de trabajar por un Urretxu mejor.



Kizkitza Ugarteburu

Igartubeiti Baserri Museoko Koordinatzailea

Las rebajas ya no son lo que eran

Estamos en época de rebajas pero también de crisis. En esta coyuntura económica que vivimos, hemos querido conocer la situación de los comerciantes de Urretxu y para ello hemos hablado con Amador Viteri, presidente de Dendartean, la Agrupación de Asociaciones de Comerciantes de Gipuzkoa, y con Aitziber Santa Cruz, Responsable de la Oficina de Dinamización para el Comercio de Urola Garaia

La Federación Mercantil acaba de publicar un dato, a 31 de diciembre de 2011, se ha producido una disminución de las ventas con respecto a 2010 de un 20-30%. En opinión de Amador las rebajas seguirán la misma tónica.

A pesar de que las rebajas comenzaron el 7 de enero, previamente los comercios ofrecieron descuentos y ofertas. *“Pienso que la gente, aunque valora las rebajas, ya no son lo que eran. El consumidor prioriza la necesidad, compra lo que necesita, con criterio. En Francia hace años que detectaron que únicamente funcionan los primeros días”* afirma Viteri.

En cuanto al comercio de Urretxu, es el segundo municipio de Euskadi con mayor índice comercial, detrás de Tolosa. Amador se muestra optimista, *“lo veo bastante mejor que en otras comar-*

cas, con buena oferta, una mejor estructura urbanística-comercial y además la asociación Bitartean es de las que mejor funciona”.

En opinión de Amador, hay dos aspectos fundamentales para mejorar la situación del comercio, la definición de las normas subsidiarias y la potenciación de un asociacionismo que articule a todo el sector servicios. *“Pienso que las normas subsidiarias presentadas en la legislatura anterior son mejorables; la construcción de viviendas y la zona comercial deben de ir acordados en la zona de Irimo”.*

Bitartean ha cambiado sus estatutos para poder aglutinar todo el sector terciario y generar un eje, crear un ente municipal sectorial para elaborar un plan de trabajo. *“La participación de los implicados es la clave”* afirma Viteri. Para ello cuentan con personal cualificado a

disposición del sector, que informe y que ayude a gestionar a todo el sector, así como a tener acceso a los distintos programas (tienen varias empresas colaboradoras), ayudas y subvenciones de las diversas instituciones públicas y distintos organismos.

También están desarrollando herramientas, la página web, una nueva plataforma informática de compras y un programa informático modular mediante el cual, por ejemplo, un restaurante podrá subir el menú diario a la nube, el cliente podrá hacer su reserva y el restaurador podrá gestionarla.

Aitziber Santa Kruz, Urola Garaiko Merkataritzaren Dinamizaziorako Bulegoko arduradunaren iritziz, egungo egoera ekonomikoan, ezjakintasuna nagusitzen da, gastua murrizten ari da eta deskontuak urte osoan zehar egiten dira. Merkealdiek ez dute hainbeste eraginik. "Igo egiten dira salmentak, baina ez garai batean bezala".

Bestalde, interneten erabilera haunditzen doa etengabe, erosketak egin aurretik bezeroek informazioa bilatzen du, beste erabiltzaileen iritzia jakin dezake, prezioak konparatu eta baita erosi ere. Merkatariak ohartu behar dira egoera berri honetaz. ***"Merkatariek bezeroekin harremanak izateko bitarteko eta zerbitzu berriak sortu behar ditu, aldaketa konstante batean egotea derrigortzen du, tratua eta profesionaltasunari garrantzia ematen jarraituz"*** dio Aitziberekek.


Elkartearen helburua sektorea eta herria dinamizatzea da, kanpainak burutuz,



webgunea hedatuz, formakuntza antolatuz, fidelizazio txartela sortuz... Herriko beste eragile batzuekin sinergiak lortzen ere saiatzen dira, ostalariekin, turismo eta kultura arlokoekin, esaterako. Agenda 21ekin ere ekintzak antolatu dituzte, poltsa berrerabilgarriak banatuz. Martxoan gainera Stock azoka antolatu dute.

Lokal berri baten bila dabilta, merkatariek jarduerak antolatzeko erabil dezaten. ***"Bezeroei gauzak azaltzeko, "Outlet"-ak antolatu ditzaten asteetan banatuz, hornitzaileek merkatariak azalpenak emateko... Gauza berriak sortzeko asmoz, toki bat izan dezaten. Elkarteak bilgune bat behar du"*** uste du Aitziberekek.

www.bitartean.net webgunean besteak beste merkatarik bakoitzaren informazioa, ordutegia, argazkiak, nobedadeak, kultur agenda, eta turismoari buruzko informazioa dago, eta bertan elkarteak dagokion informazio guztia kontsulta daiteke.



Harrera berria, ate aldaketa bat baino askoz gehiago

Udaletxerako sarrera nagusia Abenidara aldatu da eta bertan dago kokatuta Herritarren Arretarako Zerbitzu berria

Joan de urtarrilaren 19tik harrera berria estreinatu du Urretxuko Udalak. Aldaketa bistakoena sarrera nagusian soma daiteke, lehen Iparragirre kalean zen sarrera nagusia, oinezkoentzat egokituta dagoen Abenidatik egiten baita orain.

Dena dela, eraldaketa fisiko bat baino askoz gehiago egin nahi izan da aldaketa hauekin, "ZabaldU Udaletxea" egitasmoaren barne, herritarrei gertuagoko zerbitzu bat eskaintzeko protokoloa jarri baita martxan. Ate beritik sartu eta berehala, Herritarren Arretarako Zerbitzuarekin egingo du topo herritarrak eta, gertuagoko eta zerbitzu hobe bat eskaintzeko helburuarekin, bertako langileek beharrezko laguntza eskainiko diote egin nahi dituen tramitazio guztiak burutzen edota izan ditzakeen zalantzak argitzen.

Zerbitzu honek 7:30etatik 15:00etarako ordutegia izango du, astelehentik ostiralera.

